

## Maitane Aguirrek bere tesia irakurri du

2013/09/24

Irailaren 24an, goizeko 12:00etan Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Maitane Aguirre Troncoso Doktoregaiak bere doktore-tesia aurkeztu zuen Polo Garaiako Auditorioan. Tesiaren izenburua Control sensorless de una máquina síncrona de imanes permanentes para aplicaciones ferroviarias eta tesi zuzendaria: Javier Poza. Gainera Bikain CUM LAUDE kalifikazioa lortu zuen.

Epaimahaia horrela osatu zuen:

- Mahaiburua: Txomin Nieva Fatela (CAF POWER & AUTOMATION) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Francisco Blazquez García (Universidad Politécnica de Madrid (UPM)) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Estanislao Oyarbide Usabiaga (Universidad de Zaragoza) Dk. Jn.
- Mahaikidea: Irma Villar Iturbe (IKERLAN) Dk. And.
- Idazkaria: Gaizka Ugalde Rosillo (Mondragon Unibertsitatea) Dk. Jn.

Tesi honek trenen trakziarako imanezko makina sinkronoentzat (PMSM) sensore gabeko kontrol estrategia ezberdinak aztertzen ditu. Ikerkerta lan honetan, modulazio metodo desberdinak, momentu eta fluxuaren kontrol teknikak eta sensorless algoritmoak bateratzen dituen kontrol estrategia bat proposatzen da. Estrategia hau aplikazioaren baldintza eta eskaerei erantzuteko gai da eta bere funtzionamendua trenen trakzioko plataforma batean egiaztatu da.



Maitane Aguirre Troncoso tesia